

Egun on:

Euskarabideko zuzendari kudeatzaile gisa eginen dudan azken ekintzaren bidez agur esan nahi nieke urte hauetan nirekin harremanak izan dituzten guztiei.

Duela hamar urte baino gehiago, Iñaki eta Josu nire lagun onek Lizarrako ikastolaren batzordean sartzera gonbidatu ninduten. Nire seme-alaben hezkuntzaz arduratutako aita izaki, pozik onartu nuen eskaintza eta han hasi nintzen euskararekin harremanetan, nire jardunaren barruan, eta ordutik intentsitate ezberdineko uneak izan ditu euskararekin loturiko nire jardunak. Urtebete beranduago, zenbait ikastolek nire izena proposatu zuten NIEren, Nafarroako Ikastolen Elkartearen, buru izateko eta sei urtez hartan aritu nintzen, arduraz, maitasunez eta gogotsu. Ahal bezain ondo egin nuen. Bidean desadostasun une batzuk, oso gutxi, egon baziren ere guztiok helburu komun batean bat gentozen: euskararekiko maitasuna, hezkuntzarekiko ardura. Ikastolak, D eredu osoa bezala, oinarrizko elementua izan dira, dira eta izanen dira gure hizkuntzaren garapenerako. Maila pertsonalean oso asebate ninduten urteak izan ziren: ikastolek jaso zituzten kalitatearen aitortpenak, berriz ere NIEko buru izendatua izatea aho batez, matrikularen hazkundea, eremu ez euskalduneko ikastolen legeztatzea, Nafarroa Oinez jendetsuak, etab.

Bizitzaren gorabeherengatik eta Carlos Pérez-Nievasen apostu ausart bati esker gure hizkuntzaren alde lanean jarraitzeko aukera izan nuen, baina oraingoan “gubernutik”. Une hartan euskara nire lana bilakatu zen. Arrisku handia zen, izan, baina erabaki nuen saiatu behar nuela, erronka onartu behar nuela eta hala egin nuen. Lau urtean profesionalki egin dut lan eta argi dut “ahal izan dudan guztia egin dudala”. Badakit batzuri gutxi irudituko zaiela eta beste batzuei gehiegi, baina inork ez du esaterik izanen saiatu ez garenik. “Botatzera ausartzen ez zaren tiroen %100ean huts eginen duzu”. Ni, behintzat, ausartu nintzen. Euskarabidea martxan da. Badakigu gaur zer den baina ez dakigu etorkizunean zer izatera iritsiko den. Proiektu hau hasi izana beti nirekin eramanen dudan zerbait da. Lau urte hauetan hamaika poz handi izan dira, baina ezin ukatu desadostasunak, kritikak eta baita eraso pertsonalak ere izan direla. Etapa hau bukatu dut eta berri bat hasiko dut, euskararekin harreman ahulagoa izanen duena. Orain ez dagokit ez Ikastolen Elkarte bezalako erakunde baten buru izatea ez Euskarabidea bezalako beste bat zuzentzea. Hemendik aurrera euskara ez da nire lana izanen eta etapa honetan egokituko zait lan egitea hainbat herritar anonimok egiten duten bezala, egunero-egunero euskararen alde saiaturaz, seme-alabekin, lagunekin edo herrian. Ziur naiz euskararen alde jarduten jarraituko dudala.

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi ditut.

Carlos Pérez-Nievasi, CDNrekin batera hizkuntza politika aldatzeko proiektu erakargarri bat sortu baitzuen eta nigan pentsatu hura zuzentzeko; Miguel Sanzi, pertsonalki bere konfidantza eman baitzidan; eta Alberto Cataláni, lanean jarraitzeko aukera eman baitzidan, inoiz ere galdetu gabe ideologikoki non kokatua nengoen.

Gure jarduna Parlamentuan jarraitu duten talde politiko guztiei: gure lana aitortu dutenei eta gehien kritikatu dutenei. Haien arreta merezi izana garrantzitsua da eta ziur naiz beti beraien ideologiarekin zintzo izanez kritikatu edo babestu gintuztela. Carmeni, M^a Victoriari, José Andresi, Paulari, M^a Luisari eta Anari eta beste guztiei, mila esker.

Gobernuko Zuzendaritza Nagusiak zuzendu dituztenei eta gainerako langile funtzionarioei, urte hauetan jasan eta sufritu behar izan dituztelako gure kexak, gure proposamenak, gure ideiak. Badakigu sarritan haien eginbeharrak eta erantzukizunak zaildu ditugula, baina beti lagundu digute bikain.

Gainerako autonomia erkidegoetan eta Europa osoan hizkuntza politikako ardurak

hartu dituzten guztiei eta haien lantaldeei. Hurbiletik ezagutu ahal izan dugu nola egiten dituzten gauzak Galizian, Katalunian, Galesen, Irlandan, Estonian eta beste hamaika hizkuntza komunitatetan. Haiengandik ikasi dugu eta haiek gugandik ikasi dute. Zorte handia izan da Anxo, Beatriz, Gregorio, Vicent, Bernard, Elisabet, Mar, Yvonne, Heledd, Meirion, Peggy, Veronica eta beste asko ezagutu izana.

Euskadiko gure anai-arrebei. Haiengan beti aurkitu dugu behar genuen ororako laguntza eta prestutasun osoa. Europa osoko hizkuntza politikaren egoera sakonean ezagutu eta gero, uste dut hutsik egin gabe esan dezakedala bere garaian Miren Azkaratek eta Patxi Baztarrikak zuzendutako taldeek eta egun Blanca Urgell eta Lurdes Auzmendik zuzendutakoek euskararen alde egiten duten lana eredugarria dela eta hala izan da aitortua Europa osoan. Mila esker Araceli.

“Euskalgintza” izeneko osatzen dutenei. Beraiek izan dira gure akuilu nagusia urte hauetan. Koldo, Oskar, Helios, Garbiñe, Paul, Sagrario, Aitziber... mila esker.

Erakunde ezberdinetatik egunero-egunero lan ikaragarria egiten dutenei, Ikastoletan, Unescon, Euskaltzaindian, Eusko-Ikaskuntzan, eta abarretan. Koldo, Andres (2), Jose Mari, Sixto, Javier eta bereziki, nola ez, Pellori.

Euskararen Nafar Kontseiluan aktiboki, kritikak eginez, iritzia emanez baina beti modu konstruktiboan lan egin duten lagunei. Uste dut lortu dugula Euskararen Nafar Kontseilua eta hortaz ere harro egotea dugu.

Eta istorio honetan garrantzitsuenak direnei, urte hauetan protagonista izan direnei, alegia, urte hauetan nirekin batera Euskarabidean buru-belarri lanean aritu izan direnei: teknikari, irakasle, itzultzaile, administrari, zuzendari, eta nola, ez, egunero gure egoitza txukun txukun aurki dezagun garbitzen dutenei. Bereziki eskerrak eman nahi dizkiet gehien jasan eta sufritu nautenei, hots, urte hauetan nire idazkari izan direnei: Nerea, Maika eta Itziar, mila-mila esker.

Bigarreik, barkamena eskatzeko unea da. Urte hauetan ziur pertsona zenbaitek minduta amaitu dutela nik egindakoengatik, pertsonalki ukitu dituztelako. Sentitzen dut. Uste dut pertsonalki ez dudala inoiz inor mindu nahi izan baina badakit inoiz egin dudala. Izanen dira, baita ere, konfiantza gugan jarri dutenak eta guk ez dizkiegunak nahiak bete. Ahalegindu arren, konponbidea ez da beti gure esku izan. Ezin izan dugu hasieran nahi genuen guztia egin baina, gutxienez ere, saiatu gara.

Azkenik, nire ondoren datorrenari onena opa nahi diot. Ziur nahiz nire lekua hartuko duenak ahal bezain ongi eginen duela, eta bere taldearekin lan eginen duela euskararen garapenean eta sustapenean aurrera egiten jarraitzeko, eta Nafarroan bizi garen guztion elkarbizitza linguistikoaren alde. Onena opa diot beretzat, Euskarabidea osatzen duten guztientzat. Erabakietan asma dezan.

Azken lau urteetan amets txiki bat bizi izan dut, non euskararen garapena nire jarduera profesionala bilakatu den. Pozik, ez nire eginbeharra bete dudalako, horretan saiatu naizelako baizik, eskerrik asko guztioi, bihotzez. Orain hasiko dudan etapa honetan euskararen alde lanean jarraituko dut, beste indar batekin bada ere. Josemari Arizmendiaretak esaten zuenez “beti dago emateko beste pausu bat”. Pausu hori emateko zuen eskura naukazue.

Bihotzez.

Xabier